



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, RIVABELLOSA, ZAMBRANA ETA ARABAKO MANZANOS KONTZEJUEN 2001-EKO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak, Arabako Batzar Nagusietako Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen Batzordeak hala eskatuta, Rivabellosa, Zambrana eta Arabako Manzanos Kontzejuen kontuen eta jardueraren fiskalizazioa mamitu du.

Arabako Lurralde Historikoaren Kontzejuak 11/95 FAK arautzen ditu, lurralde izaerako toki entitate modura definitzen dituen, nortasun juridiko propio eta jarduteko gaitasuna dutenak; legemendeak udalerriak osatzen duena baino zabalera txikiagoko lurralde barrutia besarkatzen du.

Entitate hauen eskumenak 11/1995 Foru Arauaren 7. artikuluan daude arautuak eta udalerrria baino esparru txikiagoko entitateen euren eskumenekin bat datoz; horien artean gailentzen dira euren ondarearen kudeaketa, basogintza barne eta hainbat zerbitzu publiko ematea. Fiskalizatu diren kontzejuetan, besteak beste, uraren bideratzea, banaketa, klorazioa eta saneamendu zerbitzuak ematen dira; argiteria publikoa eta herribide, lorategi eta basa-ondarearen mantenua ere bai.

Ezargarria den arautegiaren arabera, sarrera eta gastuen erregistroa kontuen Liburuaren molde ofizial batean baizik ez daiteke egin.

Arautegia betetzeari dagokionez, HKEEk azaleratu du Zambranako kontuak ez dituela Administrazio Batzordeak oniritzi, horretarako eskumena duen organoa eta Rivabellosaren kasuan, ez dela agirietan oniritzi izana azaltzen. Nolanahi ere, fiskalizatutako kontzejuen kontuak, aurrekoak barne, egoki islatzen dituzte, HKEEren iritzira, 2001eko urtealdiaren eragiketa ekonomikoak.

Fiskalizazio txostenak huts eta gomendioen atal bat besarkatzen du, orokorrak kontzeju guztientzat eta berariazkoak aztergai izan diren entitateentzat. Lehenengo multzoan kontzeju, udal eta koadrilei ezargarriak zaizkien eskumenak zehazteko beharra azpimarratu da, gastu publikoaren eraginkortasun eta zuhertasun irizpideei jarraiki. Berariazko hutsen artean, aztertutako hiru kontzejuentzat komunak direnak, ondasun zerrendak eguneratuta ez egoteari buruzkoek merezi dute aipua.